



Data: 2023/10/11

2022KO LAN-ESKAINZA PUBLIKOA
Egonkortzeko lehiaketa-oposizioa eta lehiaketa-oposizio arrunta

BEC-EN PROBAK EGITEKO AKREDITAZIOA. JARRAIBIDEAK.

- **OSO GARRANTZITSUA:** Nahitaezkoa da akreditazioa/k eramatea (mugikorrean edo paperean inprimatuta)

- **Nola lortu egiaztagiria:**

1) Izangaien telefono mugikorretara (eskabidean adierazitakoetara) whatsapp bidez bidaltzea:

Maisuak. 2023/10/21eko probetarako: 2023/10/11n bidaltzen da.

Bigarren Hezkuntza, Musika eta Arte Eszenikoak eta Arte Plastikoak eta Diseinua.
2023/10/28ko probetarako: 2023/10/16an bidaliko da.

Prozesuan jarraitzen duten izangaiei bidaliko zaie, programazio didaktikoa/unitate didaktikoa/ikaskuntza-egoera ez entregatzeagatik baztertutako pertsonen zerrenda argitaratu ondoren (parte hartzen den lehiaketa-oposizioaren arabera).

2) Interneteko helbide bat gaituko da, eta bertan, inprimaki bat bete ondoren (NANA eta eskabide-zenbakia adierazita), akreditazioak deskargatu eta inprimatu ahal izango dira. Aurreko atalean adierazitako data berberetan gaituko da.

- **Zer eduki du akreditazioak:** irakurtzeko QR kode bat, eta kasu bakoitzari dagozkion probak zein egun, ordu, pabiloi eta zonaldean egingo diren.

- **Noiz erakutsi behar da:** Pabiloira sartu aurretik, proba bakoitzerako sarrera-kontrola egiteko.

- **Zenbat egiaztagiri eduki behar dira:** Espezialitate batean baino gehiagotan eta lehiaketa-oposizio batean baino gehiagotan eskaerak onartuta izanez gero, whatsapp bidez bidaliko dira onartutako eskabide adina akreditazio; paperean inprimatzea aukeratuz gero, dauden eskabide adina akreditazio deskargatu eta inprimatu beharko dira. Kasu bakoitzean, dagokion akreditazioa erakutsi beharko da.

OHARRAK:

- **ZONA-ZENBAKIA ETA ESLEITUTAKO EPAIMAHAIA:** Zonaldea bat dator izangaiari dagokion, espezialitatean eta lehiaketa-oposizioan, esleitutako epaimahai-zenbakiarekin.

Espezialitate eta lehiaketa-oposizio bakoitzean esleitutako epaimahaiaren zenbakia ere kontsultatu ahal izango du izangai bakoitzak, honako helbide honetan:

Egonkortzeko lehiaketa-oposiziorako.



<https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022ko EPE. Irakasleak. Egonkortzeko oposizio-lehiaketa» – "Norberari egokitutako Kontsultak" – "Epaimahaia".

Ohiko lehiaketa-oposiziorako

<https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022ko EPE. Irakasleak. Ohiko lehiaketa-oposizioa – "Norberari egokitutako Kontsultak" – "Epaimahaia".

Halaber, izangai bakoitzak kontsulta egin ahal izango du esleitutako epaimahaiaren osaerari buruz eta esleitutako izangai guztien zerrendari buruz, dagokion espezialitatean eta oposizio-lehiaketan, honako helbide honetan:

Egonkortzeko lehiaketa-oposiziorako.

<https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022ko EPE. Irakasleak. Egonkortzeko oposizio-lehiaketa – "Hautaketa-prozesuaren jarraipena" – "Epaimahaiak".

Ohiko lehiaketa-oposiziorako

<https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2022ko EPE. Irakasleak. Ohiko lehiaketa-oposizioa – "Hautaketa-prozesuaren jarraipena" - "Epaimahaiak".

- 2023KO URRIAREN 28ko 17: 00ETAN EGINGO DIREN PROBA PRAKTIKOAK.

Proba praktiko bera egingo da egonkortzeko lehiaketa-oposiziorako eta lehiaketa-oposizio arrunterako, espezialitate hauen kasuan: Enpresen administrazioa, Eraikuntza zibilak eta eraikuntza, fabrikazio mekanikoko antolamendua eta proiektuak, energia-sistemen antolamendua eta proiektuak, Sistema elektroteknikoak eta automatikoak, Esku-hartze soziokomunitarioa, Prozesu-komertzialak, Eraikuntza-proiektuen bulegoa, Instalazio elektroteknikoak, Ekipo elektronikoak, Irudi eta soinuko teknikak eta prozedurak, Sistema eta aplikazio informatikoak, Prozesu-eragiketak, Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak, Osasun- eta asistentzia-prozesuak eta Gizartearentzako zerbitzuak.